


SAN BARTOLOMEKO HORMA

F MAILA

EASO, Z.G.



Egilea eta data: J. R. Alday; XX. mendearen hasiera aldea

Deskribapena

San Bartolomeko harresiak San Bartolomeko muinoa errematzen du Easo kalean zehar, Aldapetaren eta Bainuetxeke eraikinaren arteko gurutzagunean. 133 m-ko luzerarako garapena du, 28 m-ko altuera gainditzen du eta haren altxaerak 2.856 m² inguruko azalera hartzen du. Eraikuntzaren aldetik, harlangaitzezko harresia da, kareharrizko bistako silarrixka duena. Altueran atzera emandako horma atal batzuk ditu, zenbait kontrahormaz bertikalki jositakoak. Ez da harresi sendoa, Easo kalea irekitzeko mendiari egindako ebakia estali eta babesteko elementua baizik, eta zabalgunearen muga ezartzen du. J. R. Alday arkitektoak 1908an proiektatutako obraren lehen fasea da, eta bukatu gabe geratu zen; aurreikusitako dekorazio akabera, eskailera monumentalak eta begiratokia ez baitziren gauzatu. Urbanizazio elementu berezia da hiriaren paisaian.

Babes erregimena

1. Araubide orokorra:

Eraikitako Hirigintza Ondarea Babesteko Plan Bereziko F mailako babesean txertatzeri loturikoa.

2. Araubide espezifikoak

- A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo alderdiak: ez.
- B. Elementu iraunkorrak: hormaren piezakatze konposiziozkoa eta harlanduxka fabrikaren egitura material eta eraikitzailea, horma egiteko erabili zena.
- C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak:
 - Baimendu egiten da honako zereginak egitea: harresiaren eraikuntza elementuak mantendu, konpondu eta, hala badagokio, ordezkatzeta, jatorrizko ezaugarri berberen arabera; haren eta inguruko espazio publikoaren segurtasun baldintza egokiak ziurtatzera zuzendutako jarduketak; garbiketa lanak, apaintekoak, eta arkitekturaren eta paisaiaren aldetik dituen nolakotasunak baliaraztekoak.
 - Era berean, zilegi da hormaren konfigurazioa eta errematea behar bezala konpontzeko beharrezkoak diren jarduketak egitea, bai eta b.20.2 lursail mugakidean programa gauzatzeari lotutako beharrezko esku hartzeak egitea ere, besteak beste, honako irizpide hauei jarraiki:
 1. Iparraldeko muturrean esku hartzea:
 - o Iparraldeko muturrean, Easo eta Aldapeta kaleen izkinan, hormaren behearazko koroatzea berriro profilatutako inguru batean, ondoko urbanizazioaren sestrekin koordinatuta, dagokion urbanizazio proiektuan harturiko mailakatzeko aurreikuspenekin bat.
 - o b.20.2 lursailen jasoko duten eraikin berriaren arteko elkargunearen soluzio arkitektoniko egokia ahalbidetzeko, dagoen hormaren muturreko tartea kentzea zilegi da, gehienez ere, 22,50 metroko luzeran, iparraldeko izkinan hasten denetik neurtuta (Zerutxo villako balaustradaren azken puntua 4 m gainditzen du, hegoalderantz).
 - o b.20.2 lursail eraikigarriaren mugakide den tartean, ekialdeko lerrokaduraren luzera osoan, hormaren harlangaitz fabrika desmuntatzea zilegi da, baldin eta, ondoren, berriro egin badute, jatorrizko hormaren harlanduxkazko harlangaitzak lehengoratu, eta, ordenantza partikularrean hormaren gaineko esku hartzearen baldintza osagarri berariazkoetan.

2. Hegoaldeko muturrean esku hartzea:
 - o Hormaren hegoaldeko muturrean dagoen azken kontrahormaren altxaeraren osagarria zilegi da (Bainuetxe Zaharraren inguruetan) goiko gailurreraino. Osagarri horrek, alde batetik, Easo kalea San Bartolome muinoaren goiko aldearekin lotzeko inguru horretan aurreikusitako igogailu publikoarekin bat egitea eskatzen du, eta, zehatzago esanda, goiko alde horretan antolatutako begiratoki-talaiarekin eta, bestetik, a.30.8 lursailean aurreikusitako bizitegi eraikin berriarekin.
 3. Erdiko aldearen gaineko esku hartzea:
 - o Hormaren goiko koroatze lerroa altuera uniforme batean (35,50 m) errematatuko dute azken kontrahorma bertikalerraino, proiektatutako igogailu publiko berriaren ondoan.
 - o Hormaren goiko koroatze lerroaren gainean, aurreikusita dago San Bartolome muinotik hiriaren erdialdeko begiratoki-talaia bat jartzeko aukera, erabilera publikokoa.
- D. Nahitaezko lehengoratzek: ez, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe.